

ZARAUTZ / Alzheimerrari eta zinemari buruzko gida bana prestatu du Sanz Eneak

Liburutegiak irailean bi irakur-gidak prestatu ditu, datozen egunei begira. Donostiako zinemaldia dela-eta, zine gida kaleratu berri du. Oraingoan, zine beltza eta suspentzezko generoko garai eta estilo ezberdineko zuzendariak aukeratu dituzte. Gidan aipatutako pelikulak, liburutegian eskuragarri daude.

Bestalde, irailaren 21ean Alzheimer eguna dela-eta, Alzheimer gida atera dute, haurrei zein helduei zuzenduriko liburu eta DVDekin.

AFAGI elkarteak hiru mahai informatibo jarriko dituzte Eroskiren saltoki handian, Kale Nagusian eta Lege Zaharren Enparantzan. Sanz Enea liburutegiak prestatu duen gidak izango dira bertan.

Martxan dira berriz ere literatur solasaldiak

Martxan dira berriz ere Sanz Enea liburutegiak antolatzen dituen literatur solasaldiak. Hurrengo saioa hilaren 28an izango da, asteazkena. Bertan Inazio Mujikaren Gerezi denbora izango da hizpide. Ohi bezala, Ane Mayozen zuzenduko du solasaldia, 18:30etik 20:00etara. Egilearen eta liburuaren inguruko informazio gehiago eskuratu nahi duenak ondoko webgunea bisita dezake: <http://www.kulturazarautz.org/kulturazarautz/>.

Urte amaiera bitarteko saioak:

-Hies betea, Andu Lertxundi. 2011/10/26

-Koaderno gorria. A. Urretabizkaia. 2011/12/23